

# **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO PARTE-HARTZE KULTURALARI BURUZKO INKESTA**

**EMAITZEN LABURPENA**

**PRENTSA-DOSSIERRA**

**2019KO ABENDUA**



**Kulturaren  
Euskal Behatokia**  
Observatorio Vasco  
de la Cultura

**Euskadiko parte-hartze kulturalak bilakaera positiboa izan du praktika kultural gehienetan, batez ere antzerkiari, kontzertuei eta dantza-ikuskizunei dagokienez.**

- *Hiru diziplina horietan 10 urtean 20 puntu baino gehiago hazteaz gain, liburutegietara, museoetara eta bertso-ikuskizunetara joateak ere nabarmen egin du gora.*
- *Bingen Zupiria Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak Euskal Autonomia Erkidegoko Parte-hartze Kulturalari buruzko Inkesta aurkeztu du gaur, Bilbon.*

Bilbao, 2019/12/09

Bingen Zupiria Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak Kulturaren Euskal Behatokiak egindako Euskal Autonomia Erkidegoko Parte-hartze Kulturalari buruzko Inkestaren datuak aurkeztu ditu gaur. Azterlanak erakusten duenez, azken 10 urteetan bilakaera positiboa izan da praktika kulturaletan, bereziki antzerkira (% 21,8tik % 45,7ra igaro da), kontzertuetara (% 16,6tik % 40ra) eta dantza-ikuskizunetara joateari dagokionez (% 9,3tik % 30,6ra). Bestalde, aztertutako 12 praktiken artean, hiru baino ez dira jaitsi: egunkarien irakurketa (9 puntu gutxiago, nahiz eta herritarren % 77,4k egunkariak irakurtzen jarraitzen duten), aldizkariena (6 puntu gutxiago, % 33raino) eta galerietara eta erakusketetara egindako bisitak (ia hiru puntu gutxiago, % 18raino).

Azterlanaren aurkezpena Euskadiko Artxibo Historikoan egin dute, eta sailburuarekin batera, Joxean Muñoz Kultura sailburuordeak ere parte hartu du. Gaur aurkeztutako analisiaren datuak Kulturaren Euskal Behatokiak egindako 2018ko Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko Inkestatik datoz, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Iparraldean eginda, 6.300 pertsonako laginarekin. Joan den azaroaren 29an eman ziren ezagutzera EAEko, Nafarroako eta Iparraldeko euskarazko kultur kontsumoari buruzko datuak. Gaur ezagutzera eman den analisia Inkesta berean oinarritzen da, baina Euskadiko Autonomia Erkidegoa hartzen du kontuan, eta honako aldagaiak neurtu ditu: kulturarekiko jarrerak; kultura-jardueren pisua eta haien bilakaera (eszenikoak, ikus-entzunezkoak, irakurketakoak edo erakusketetarako bisitak); asoziazionismoa eta praktika artistiko amateurrak; praktika kultural digitalak; eta, azkenik, euskarazko parte-hartze kulturala (nahiz eta azken atal honetako datuak joan den azaroaren 29an aurkeztutakoen antzekoak diren, oraingoan EAERI dagokionez).

Azterlanaren helburua, Zupiria sailburuak azaldu duenez, herritarren parte-hartze kulturalaren "argazki zehatza emango duten adierazleak lortzea" da: "Parte-hartze kulturalaren inguruko ikerketak aukera ematen digu zehatz-mehatz jakiteko zein puntutan gauden, intuizioen eta pertzepzioen ginetik. Azterlan honek ematen digun argazkiak azken hamarkadan parte-hartze kulturalak izan duen bilakaera behatzeko aukera ematen digu -kasu honetan, oso positiboa-, eta, aldi berean, indarguneak eta ahuleziak aztertzei aukera ematen digu". Gaur aurkeztutako txostenaren kasuan, lagina 15 urte edo gehiagoko pertsonen egindako 3.800 elkarrizketek osatzen dute. Laginak lurralde historikoen (Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba), bizileku-udalerriaren dimentsioaren, sexuaren, adinaren eta euskararen ezagutzaren arabera

ordezkagarritasuna ziurtatzen du, eta horrek aukera ematen du parte-hartze kulturalaren banaketa soziala ezagutzeko, biztanleria-talde desberdinen arabera.

Duela hamar urte egindako aurrekari bat du ikerlanak: Euskal Herriko kultur ohitura, praktika eta kontsumoari buruzko 2007-2008 Inkesta, Kulturaren Euskal Behatokiak bultzatutako lehen estatistika. Horregatik, txostenak duela hamar urteko egoerarekin alderatzen du gaur egungo egoera, kasu honetan EAERI dagokionez.

## **ONDORIO NAGUSIAK**

### **Kulturarekiko jarrerak eta kultura praktikak**

EAEko biztanleriak kulturarekiko jarrera positiboa adierazten du 1etik 10erako eskala batean, kultura-jardueretan parte hartzeak duen garrantzia 7,34 puntuan dago. Parte-hartze kulturalak errekonozimendu soziala baduela erakusten du.

Oro har, parte-hartze kulturalaren bilakaera global positiboa egon da kultura-praktiken burutzapenean. Bereziki gehitu dira antzerkiari, kontzertuei eta dantza ikuskizunei dagokienez (% 20tik gorako gehikuntzak). Aztertu diren 12 praktiketarik 3 murriztu dira: egunkarien irakurketa (9 puntu gutxiago), aldizkariena (6,6 puntu gutxiago) eta arte-galerietara joatea (ia 3 puntu gutxiago).

Liburuak irakurtzea, zinemara eta kontzertuetara joatea, praktika zabalduenak dira biztanleriaren artean. Liburuak irakurketa, zinemara joatea eta kontzertuetara joatea biztanleriaren % 60aren gainetik daude (azken 12 hilabeteetan inkesta egin zenean). Ondoren, % 40tik % 50era bitarteko portzentajeekin gutxi-gorabehera, museoetarako bisitak, antzerkira joatea eta liburutegira joatea ditugu. Nabarmentzekoak dira dantzara joatea, bideo-jokoetara jokatzeko eta arte-galerietarako bisitak ere.

### **Asoziazionismoa eta amateur mailako praktikak**

Azken hamarkadan % 61 igo da kultura-elkarteetan parte hartzea. Biztanleriaren % 13k kultura-elkarte batean parte hartzen dute; % 2,6k batean baino gehiagotan; guztira % 15,6ra heltzen da. Hiru biztanletik batek amateur mailako praktikaren bat egiten du. Zehazki, biztanleriaren % 32,6k adierazten dute gutxienez urtean behin parte hartzen duela sormenezko jardueretan, hala nola, idazketan, margolaritzan, dantzan, artisautzan eta beste hainbatetan.

### **Kultura praktika digitalak**

Internet informaziora sartzeko bitarteko eroso bat da, azterlanak islatu duenez. Oso zabaldua dauden (% 70 eta % 85 bitartean, Interneteko erabiltzaileen artean) lau praktikak osatutako blokea nabarmentzen da: albisteen irakurketa, informazio-bilaketa eta musika entzutea. Bigarrenik, gutxiago zabaldua dauden (% 43 eta % 49 bitartean) praktikek osatutako bloke batek kultura-erakunde sarbide- edo deskarga-praktikak biltzen ditu, eta horrekin batera, zuzeneko ikuskizunetarako tiketean erosketa eta webgune edo blog pertsonaletarako bisita. Sare sozialek kultura partekatzea errazten dute. Internetera maiz sartzen den biztanleriaren artean, % 16,5ek material propioa partekatzen dute sare sozialean. % 25ek beste autore batzuen material

artistikoa partekatzen dute. Bostetik batek sareak beste artista batzuk ezagutzeko edo haiekin harremanetan jartzeko erabiltzen ditu. Ia % 16k bere gogoeta pertsonalak idazten dituzte eta % 14k kultura-foroetan parte hartzen dute.

Bestalde, inkestak islatzen du kultura-edukia duten plataformak aurrera doazela. 10 biztanletik hiruk kontu bat daukate kultura-edukia duen plataforma digitalaren motaren batean. Gazteen artean proportzioa bikoiztu egiten da. Horrelako plataformetan konturen bat duten ohiko internautak kontuan hartuta, hirutik bik ordainketa-kontu bat daukate, dela banakoa dela taldekoa

### **Euskarazko parte-hartze kulturala**

Azkenik, Zupiria sailburuak labur-labur azaldu ditu euskarazko kultur kontsumoari buruzko datuak; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko datuak duela gutxi aurkeztutako Euskadiko, Nafarroako eta Iparraldeko datu globalen antzekoak dira. Inkestak, abiapuntu gisa, euskararen ezagutza neurtu du: Euskadiko 15 urtetik gorako biztanleen % 36,1era iritsi da (orain dela 10 urte baino 7 puntu gehiago). Datuak bat datoz 2016an egindako Euskararen azken Inkesta Soziolinguistikoarekin.


Ikerketaren arabera, herritarren euskarazko parte-hartze kulturalak bilakaera positiboa izan du, euskararen lurralde osoko datuekin gertatzen zen bezala. Euskarazko antzerkiera joatea laukoiztu egin da, bertsolarien ikuskizunetara joateak eta euskal musika entzuteak ere gora egin dute (euskaldunen % 82k euskaraz entzuten du musika euskaraz). Irakurketa egonkor samar mantentzen da (jaitsiera txiki bat islatzen da)

# Kulturarekiko jarrerak eta kultura-praktikak

## Kultura-jardueretan parte hartzearen garrantzia

1etik 10erako eskala batean, zeinean pertsonen kultura-jardueretan parte hartzeak berentzat duen garrantzia puntuatzea eskatzen den, **7,34 puntu** dago batez besteko balorazioa. **Balio handia** da, eta parte-hartze kulturalak errekonozimendu soziala baduela erakusten digu horrek.


1. GRAFIKOA. KULTURA-JARDUERETAN PARTE HARTZEAREN GARRANTZIAREN BATEZ BESTEKO BALORAZIOA



## Parte-hartze kulturalaren bilakaera positiboa

Oro har, praktika hauek kontuan izanda, parte-hartze kulturalaren **bilakaera global positiboa** egon da kultura-praktiken burutzapenean.

2. GRAFIKOA. KULTURA-PRAKTIKEK BIZTANLERIAN IZAN DUTEN INTZIDENTZIAREN BILAKAERA (%)



\*1 = Zenbait aldiz astean; 2 = Azken hiruhilekoa, 3 = Eguneroko, 4 = Azken hilabetea; 5 = Azken urtea

Bilakaera positiboen artean, honako hauek nabarmentzen dira gehikuntza handienarekin:

- » Antzerkira joatea (portzentajezko +23,9 puntu)
- » Kontzertuetara joatea (portzentajezko +23,4 puntu)
- » Dantzara joatea (portzentajezko +21,3 puntu)
- » Zinemara joatea (portzentajezko +15,1 puntu)

Neurri txikiagoan, honako hauek ere gehitzen dira:


- » Bertso-saiotara bertaratzea (portzentajezko +9,2 puntu)
- » Museoetara bertaratzea (portzentajezko +7,9 puntu)
- » Liburutegira bertaratzea (portzentajezko +6,5 puntu)
- » Liburu-irakurketa (portzentajezko +4,6)
- » Musika egunero entzuteko maiztasuna (portzentajezko +2,8 puntu)

Arte-galerietara joatea dago neurri handi batean atxikitzen diren praktiken artean (% 9 inguru). Jaitsieren artean egunkari eta aldizkarien irakurketa dugu, 9 eta 7 puntu murriztu direlarik, hurrenez hurren.

## Kultura praktikei buruzko zeharkako begirada

Praktika jakin batzuk egiten diren maiztasunarekiko **zeharkako begirada** batek kultura-jardueren artean hiru bloke detektatzea ahalbidetzen du.

3. GRAFIKOA. PERTSONAK, KULTURA-PRAKTIKA DESBERDINAK EGITEKO MAIZTASUNAREN ARABERA (%)



\*Oharra: Irakurketan irakurritako liburuen kopuruari buruzkoak dira datuak ("1etik 3ra bitarte" eta "4 baino gehiago") eta bideo-jokotan erabilera-maiztasunari buruzkoak ("Zenbait aldiz astean edo egunero" eta "Noizean behin")

Biztanleriaren guztizkoaren % 60aren gaineratik honako hauek daude:

- » Liburuen irakurketa (% 74,2)
- » Zinemara joatea (% 69,2)
- » Kontzertuetara joatea (% 62,7)

Ondoren, % 40tik % 50era bitarteko portzentajeekin gutxi gorabehera, honako hauek ditugu:

- » Museoetarako bisitak (% 51,4)
- » Antzerkira joatea (% 45,7)
- » Liburutegira joatea (% 42)


Nabarmentzekoak dira dantzara joatea (% 30,6), bideo-jokoetara jotzea (% 21,2) eta arte-galerietarako bisitak (% 18,8) ere.

# Asoziazionismoa eta amateur mailako praktikak

## Asoziazionismo kulturala


% **15,6k** aktiboki parte hartzen dute kultura-elkarteren batean.

4. GRAFIKOA. KULTURA-ELKARTE BATEAN EDO GEHIAGOTAN PARTE HARTZEN DUTEN PERTSONAK (%)



**2008-2018 aldiko konparatiba historiko batean**, asoziazionismo kulturalean izandako 6 puntuko igoera da nabarmentzekoa.


5. GRAFIKOA. KULTURA-ELKARTEREN BATEAN PARTE HARTZEN DUTEN PERTSONEN KOPURUAREN BILAKAERA (%)



## Amateur mailako praktika artistikoak

EAEko biztanleriaren % **32,6k** adierazten dute gutxienez urtean behin parte hartzen duela sormenezko jardueretan, hala nola idazketan, margolaritzan, dantzan, artisautzan eta beste hainbatetan.


6. GRAFIKOA. AZKEN URTEAN AMATEUR MAILAKO KULTURA-PRAKTIKAREN BAT EGIN DUTEN PERTSONAK (%)





**2008-2018 aldiko konparatiba historiko bat eginez**, gorakada nabarmena ikusten da margolaritza edo marrazkigintza ez diren arte plastikoak egiteari dagokionez, % 4,6tik % 11,1era igaro baita. Dantzaren kasuan ere igoera gertatu dela ikusten da; 2008ko % 5,3tik % 8,2ra. Pintura eta marrazkian igoera ez da hain garrantzitsua, % 6,7tik % 8,1era igarota. Gainerako kasuetan, balioesteko zailak diren aldaketak ikusten dira, praktika minoritarioak direlako (% 4aren azpitik) edota oso txikiak direlako (% 2 baino txikiagoak diren aldaketak).

**7. GRAFIKOA. AMATEUR MAILAKO PRAKTIKEN BILAKAERA, 2008-2018 ALDIAN (%)**




\* Oinarria: Biztanleria osoa

# Kultura-praktika digitalak

## Kultura-praktika digitalak

Arretagaitzat Internetera erregulariki nortzuk sartzen diren hartuz gero (EAEko biztanleriaren % 75,6), aldeak ikusten dira kultura-praktiken artean.

8. GRAFIKOA. KULTURA-PRAKTIKA DIGITALEN INTZIDENTZIA-MAILA BIZTANLERIAN AZKEN HIRU HILABETEETAN (%)



\* Oinarria: Internetera erregulariki sartzen den biztanleria (% 76,3)

Emaitzetan ikusten den bezala, Internet ez da mundu ez-digitalean egiten diren praktikak beste formatu batean errepikatzen den lurraldea, baizik eta bereziki, informaziora sartzeko bitarteko eroso bat:

- » Lehenik, oso zabaldua dauden (% 70 eta % 85 bitartean) lau praktikak osatutako blokea nabarmentzen da, albisteen irakurketa, informazio-bilaketa eta musika entzutea uztartuz.
- » Bigarrenik, gutxiago zabaldua dauden (% 43 eta % 49 bitartean) praktikek osatutako bloke batek kultura-educiko sarbide- edo deskarga-

praktikak biltzen ditu, eta horrekin batera, zuzeneko ikuskizunetarako tiketen erosketara eta webgune edo blog pertsonaletarako bisita.

- » Erabilera minoritarioenek hainbat jardura biltzen dituzte, hala nola irratia entzutea, ikuskizunak ikustea, liburutegi-zerbitzuetarako sarbidea, bideo-jokoetara jotzea, edo museo edo erakusketetarako bisita birtualak (% 28,5 eta % 15,2 bitarte). Azkenik, adierazi behar da Internetera erregulariki sartzen den biztanleriaren % 8,6k webguneak edo blogak sortzen dituztela.

## Sare sozialak parte-hartze kulturalen

Internetera erregulariki sartzen den biztanleriaren artean:

- » % 24,6k beste autore batzuen material artistiko edo kulturala partekatzen dute, eta % 16,5k material propioa.
- » % 21,1ek sareak erabiltzen dituzte beste artista batzuk ezagutzeko edo haiekin harremanetan jartzeko, profesionalak edo amateurrak direla ere.
- » % 15,8k ere gogoeta pertsonalak idazten dituzte sare sozialetan, eta % 8k blog eta webgune pertsonaletan idazten du.
- » % 14,1ek gai kultural edo artistikoetako foroetan parte hartzen dute.

3. GRAFIKOA. OHIKO INTERNAUTEN ARTEAN, KULTURA-PRAKTIKEK SARE SOZIALETAN DUTEN INTZIDENTZIAREN RANKINGA (%)




\* Oinarria: Internetera erregulariki sartzen den biztanleria (% 75,6)

## Kultura-educia duten plataforma digitaletara harpidetzea


EAEko biztanleriaren guztizkoaren **% 30ak** kontu bat daukate kultura-educia duten plataforma digitalaren motaren batean (% 40,2ak erregulariki Internetera sartzen den biztanleria soilik kontuan hartuz gero).

10. GRAFIKOA. KULTURA-EDUKIRAKO SARBIDEA DUEN PLATAFORMA DIGITALEN BATERA HARPIDETUTAKO PERTSONAK, BIZTANLERIA-TALDEEN ARABERA (%)




Horrelako plataformetan konturen bat duten ohiko internautak kontuan hartuta, **hirutik bik ordaintzeta-kontu bat daukate**, dela banakoa (% 36,2), dela taldekoa (% 31).

11. GRAFIKOA. KULTURA-EDUKIRAKO SARBIDEA DUEN PLATAFORMA DIGITALEN BATERA HARPIDETUTAKO PERTSONAK, BIZTANLERIA-TALDEEN ARABERA (%)



Biztanleria osoa kontuan izanda, **% 20,6k** kontu bat daukate filmen eta sailen plataforma batean, **% 19,9k** musika-plataforma batean eta **% 4,5ek** liburu digitalen plataforma batean.

12. GRAFIKOA. KULTURA-EDUKIRAKO SARBIDEA DUEN PLATAFORMA DIGITALEN BATERA HARPIDETUTAKO PERTSONAK BEREN TIPOLOGIARI JARRAIKIZ, BIZTANLERIA-TALDEEN ARABERA (%)



# Euskarazko parte-hartze kulturala

## Euskararen ezagutza

2008ko datuak abiapuntutzat hartuta, euskararen ezagutzaren **bilakaera positiboa** izan dela ikus daiteke, % 29,4tik % 36,1era igaro baita

4. GRAFIKOA. BIZTANLERIA EUSKAL HIZTUNAREN BILAKAERA, 2008TIK 2018RA (%)




\*Kulturaren Euskal Behatokiaren "2008ko kultura-ohitura, -praktika eta -kontsumoei buruzko inkestaren" ustiapenetik datoz 2008ko datuak.


## Euskarazko kultura-praktiken bilakaera

Erretratu osoagoa eskaintzeko, inkestan 2008-2018 aldiko konparazio historikoa egiteko aukera ematen duten galderak jasotzen ziren euskarazko praktika batzuetarako. Joan den azaroaren 29an aurkeztu zituzten datuak, EAE, Nafarroa eta Iparraldeari lotuta. Hurrengo grafikoetan, kultura-praktikak identifika daitezke, biztanleria osoari eta euskal hiztunei erreparatuta.

**14. GRAFIKOA. EUSKARAZKO KULTURA-PRAKTIKEN BILAKAERA 2008TIK 2018RA BITARTEAN, BIZTANLERIA OSOAREN ARTEAN (%)**



**15. GRAFIKOA. EUSKARAZKO KULTURA-PRAKTIKEN BILAKAERA 2008TIK 2018RA BITARTEAN, EUSKAL HIZTUNAK (%)**



# ERANSKINA

## Inkestaren fitxa teknikoa

<b>Biztanleria- eta administrazio-eremua</b>
Euskal Autonomia Erkidegoa
<b>Denbora-eremua</b>
2018ko iraila-abendua
<b>Laginaren diseinua</b>
Ausazko laginketa geruzatua esleipen ez-proporzionalarekin
<b>Geruzak eta kuotak</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>» Lurralde historikoa</li><li>» Udalerriaren biztanle kopurua</li><li>» Sexua</li><li>» Adina</li><li>» Euskararen ezagutza</li></ul>
<b>Tamaina eta haztapena</b>
<b>3.800 elkarrizketa</b>
Azterketarako datuak aztertu beharreko biztanleriaren arabera haztatzen dira geruza eta kuoten proportziorako banaketa eskaintzeko
<b>Lagin-errorea</b>
$\pm 1,62\%$ (Kulturaren Euskal Behatokiaren webgunean eskuragarri dagoen txosten metodologikoan kontsulta daiteke lagin-akatsaren estimazioa gurutzaketa-aldagaiak osatzen dituzten kategorietarako)
<b>Konfiantza-maila</b>
$\% 95,5$ gehieneko zehaztugabekotasuneko suposiziopean ( $p=q=\% 50$ )
<b>Elkarrizketa egiteko metodoa</b>
Ordenagailuz lagundutako telefono bidezko elkarrizketa
<b>Elkarrizketen iraupena</b>
10-30 minutu